LANGILEAK ESPERO GENITUEN,
PERTSONAK ETORRI ZIREN
ETA AUZOKIDEAK NAHI DITUGU

# GERORA GERTATUTAKO IRREGULARTASUN-EGOERAK

## HONELA ERAGITEN DIGU PERTSONA GISA

Bettyk bost urte daramatza Espainian. Bi etxetan egiten zuen **lan, etxe-langile gisa** .

Zorionez, **kontratuak egin dizkiote**, eta horrek egonkortasuna eman dio bere egoera legal eta administratiboari.






**Bi seme ditu bere kargu**, eta, ahal duen guztietan, **diru pixka bat bidaltzen dio Kolonbiara, bere amari**.

Dena den, **beste ezer baino gehiago, ama Espainiara ekarri nahi du**, **jada**, adinekoa baita...






Bere lanarekin, **pentsatzen hasia da etorkizunean hemen erroak bota** eta bere semeek hezkuntza ona jasoko dutela.

Caritas

# BETTYK LANA GALDU ZUEN






**Krisiaren** eztenak Bettyri ere zizt egin zion. Haren enplegu-emaileek ezin izan zuten bere zerbitzuekin aurrera jarraitu.

Lagun bati esker, norbait ordezkatu ahal izan zuen pare bat aldiz, ordutxo batzuk ere egin zituen han-hemenka... baina, jakina, **dena kontraturik gabe**.



Aste gutxi barru, Betty **egoitza-baimena berritzeko paperak egiten hastekoa zen**.






a.

Continuar con la relación laboral que dio lugar a la autorización que se va a renovar, siempre que se hayan cumplido las obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

Baina **aurrez aurre egin zuen topo** Atzerritar Legearekin eta haren Araudiak ezartzen dituen **baldintzekin**.

Hilabete gutxiren buruan, Betty **ADMINISTRAZIO-EGOERA IRREGULARREAN** geratu da.

**BOLETÍN OFICIAL DE ESTADO**

Sábado 30 de abril de 2011 — Sec. I. Pág. 43821

**I. DISPOSICIONES GENERALES**

MINISTERIO DE LA PRESIDENCIA

*Real Decreto 557/2011, de 20 de abril por el que se aprueba el Reglamento de la Ley Orgánica 4/2000, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social, tras su reforma por Ley Orgánica 2/2009.*




Haren **bizitza-proiektua** eta haren familiarena **desagertu egin ziren**... eta BERE EGUNEROKOA ere aldatu egin zen.




## LAN-MERKATUA

Indarrean dagoen Atzerritarrei buruzko Legearen arabera, **lan-egoerak** baldintzatzen du giza eskubideak baliatzeko aukera.



# KONTRATURIK GABE, EZ DAGO ESKUBIDERIK

Legeria honekin, **Bettyk ezingo du, besteak beste**:

- **Eskolako bekarik** jaso bere semeentzat.
- **Kalean ibili beldurrik izan gabe** ea agiriak eskatuko ote dizkioten.
- **Gizarte-laguntzarik** eskuratu.
- **Mediku laguntza berezia** jaso.
- **Laneratzeko ikastaro** batean parte hartzea.
- **Etxebizitzarako laguntzak** eskuratzea.
- 18 urte bete, babespeko adingabe atzerritarra izateari utzi eta eskaintzen direnak bezalako lan bat izan.
- Indarrean dagoen **legeriaren araberako soldata** jaso.

“

## ARAUDI HORI EZ DATOR BAT GURE BALIOEKIN:

*“Lege-egoera irregularrean egoteak ez du aukera ematen emigratzailearen duintasuna gutxitzeko, eskubide besterezinak baititu, urratu eta baztertu ezin daitezkeenak.”*

*Joan Paulo II.aren mezua, Emigratzaileen Nazioarteko Jardunaldia, 1. eta 2. (1996)*

... Araudi horrek kale itsu bat dirudi, eta beharrezkoa ez den sufrimendua besterik ez du sortzen.

# LANGILEAK ESPERO GENITUEN...



# ... ETA PERTSONAK ETORRI ZIREN

- Paperak dituztenak eta paperik gabekoak. Gaur egun, horrela dago gizadia zatituta.



**ETORKIZUN IKUSEZINAK BEHAR DIRA. HOTS EGIN TELEFONO HONETARA**

**900 100 100**



## ETA... ETA... BUELTA EMATEN BADIOGU?

Ikusi nolakoa izan daitekeen Bettyren istorioa.

Eskolako guraso-elkartean **gehiago parte hartzeko gogoa daukat**.

Izena emango dut **auzo-elkartean**, jostailuak biltzen laguntzeko hots egin diezadaten.

Azkenean, **odol-emailea izan naiteke berriz ere**.

**Bankuko kontua konponduko dut**, bertan behera utzi zidaten eta.

**Langabezia-zerrendan izena emango dut;** hartara, kontratua duen lan egoki bat ateraz gero, hots egin ahal izango didate.



## "Arrotz nintzen, eta etxean hartu ninduzuen"

Mt 25,35

*"Emigratzaileak AUKERA bat dira, Probidentziak ematen diguna, eta Ebanjelioarekin bat datorrena gizarte justuago eta kristau-elkarte irekiago bat eraikitzeko."*

*Frantzisko I.aren mezu pontifikala, Migratzaileen eta Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna, 2014.*

## ESKUBIDEAK IZATEKO AUKERA

**AUZOTASUNAK, GIZARTEAN ERROTZEN gaituela kontuan hartzen badugu**, orduan beste ate bat dugu **ESKUBIDEAK ERABILTZEKO AUKERA** izateko.

Kalean barrena ibiltzen naiz, **beldurrik gabe ea agiriak eskatuko ote dizkidaten**.

Alabarentzako **beka bat lortu dut**.

**Laneratzeko ikastaro bat egin dut** nire prestakuntza hobetzeko.

Nire seme zaharrenak **giltzurrunerako behar duen mediku tratamendua jasotzen du**.

ESKUBIDEAK
ESKUBIDEAK
ESKUBIDEAK
ESKUBIDEAK



## ESAN AL DEZAKEGU BETTY ERROTUTA DAGOELA BERE SAN ANTON AUZOAN?

## ~~GERORA GERTATUTAKO IRREGULARTASUN-EGOERA~~

Bettyk 5 urte daramatza Espainian. **Bi etxetan egiten zuen lan, etxe-langile gisa**.

**Errotze sozialak** egonkortasuna eman dio bere egoera legal eta administratiboari.






**Bere bi semeak mantentzen ditu**, eta, ahal duen guztietan, **diru pixka bat bidaltzen du Kolonbiara bere amarentzat**.

Dena den, **beste ezer baino gehiago, ama Espainiara ekarri nahi du**, jada adinekoa baita, eta...






Bere lanarekin, **etorkizunean, bere burua hemen ikusten du** eta bere semeek hezkuntza ona jasotzen.

# HORRELA JARRAI LEZAKE BERE ISTORIOAK



Aste gutxitara, Betty **egoitza-baimena berritzeko paperak egiten hastekoa** zen.




Lana galdu izan arren, **Atzerritar Legean onartutako aldaketek** Espainiako gizartean errotuta dagoela aitortzen diote Bettyri.

**Lan-kontratu bat izatea jadanik ez da ezinbesteko baldintza** administrazio-egoera erregularrean jarraitzeko, eta Bettyk, azkenean, arreta osoa jar dezake bere bizitzan.







**Zailtasunak zailtasun**, Bettyren eta haren familiaren **bizitza-proiektuek aurrera jarraitzen dute**. Poliki-poliki, egunero gero eta gehiago hurbiltzen da bere helburuetara.

Bettyk aurrera jarraitu ahal izango du bere bizitzarekin, baita **lasai** aurrera jarraitu ere, beste herritar bat gehiago bezala **ERROTZE SOZIALA dela-eta, eskubideak baititu**.

# ORDUAN...

## (BESTE) HERRIALDEA

### Aldaketak onartzen dira Atzerritar Legean

Gizarte zibileko proposamenak kontuan hartuz, Gobernuak aldaketak egin ditu errotze sozialaren baldintzetan, gerora gertatutako irregulartasun-egoerak saihesteko.




**NAHIKOA DA ESKUBIDEERANTZKO SARRERA ALDATZEA.**

# BETTYK LANA GALDU ZUEN






**Krisiaren** eztenak Bettyri ere zizt egin zion.

Haren enplegu-emaileek ezin izan zuten bere zerbitzuekin aurrera jarraitu.

Lagun bati esker, norbait ordezkatu ahal izan zuen pare bat aldiz, eta baita ordutxo batzuk ere egin zituen han-hemenka... baina, jakina, **dena kontraturik gabe**.



# BETTY ERROLDATUTA DAGO

Betty **bere auzoan, San Antonen, erroldatuta dago. Han bizi da bere bi semeekin** duela bi urte ezkero.

Zintzo ordaintzen du bere pisu txikiaren alokairua.

**Auzokoek begirunea diote**, eta pertsona jator, zintzo, atsegin eta baikortzat dute.



## ETA AUZOKOA DEN ALDETIK ...

- **Argindarra eta etxebizitzako gastuak ordaintzen ditu**.
- **Zerga-betebeharrak betetzen ditu**, ogia, janaria eta abar erosten dituenean.
- **Ekarpenak egiten ditu** semeen eskolako **guraso-elkartean**.
- Bere blokeko eskailera **garbitzen du** tokatzen zaionean.
- Bere semeek **auzoko liburutegia** erabiltzen dute.
- Noizbait joan izan da **auzo-elkartera**, nahi baino gutxiagotan, baina, ez da denetara iristen.
- Parrokiako guraso taldean parte hartzen du; bere seme gazteenak eskola-laguntza jasotzen du bertan.





GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE DERECHOS SOCIALES Y AGENDA 2030
POR SOLIDARIDAD
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL
Caritas